



Bandoa ATAUN

LANGILE BAT KONTRATATZEA

Lan pilaketa dela eta, Ataungo Udalak langile bat kontratuko du herri-laneterako, lanaldi osoan, eta gehienez zazpi hilabeterako. Langilearen eginkizunei buruzko informazioa Udaletxean bertan emango dizuegu. Interesa duzenok Lanbiden eman behar duzue izena, martxoaren 10etik 18ra bitartean.

SILO-BOLEN PLASTIKOAK BILTZEKO EGUTEGIA

Hilean behin biltzen dira silo-bolen plastikoak. Hauxe da egutegia:

Urtarrilak 21

Otsailak 18

Martxoak 17

Apirilak 21

Maiatzak 19

Ekainak 23

Bilketa-guneak, berriz, ohikoak: Otadi Zelai baserria, mediku etxearen atzealdea (San Martin), Saltxeberriko bidegurutzea, Agerreko bidegurutzea, San Gregorion Intxaustiko zubia, Arratiñe baserrirako bidegurutzea eta Lauztiturrieta baserria.

SAN GREGORIOKO PILOTALEKUKO ARGIA


San Gregorioko pilotalekuan argia pizteko fitxak Sutegin edo Troskaetan hartu behar dira.


EUSKARALDIKO BATZORDEA


Euskaraldiko herri batzordea osatzeko bilera martxoaren 11n izango da, 19:00etan, Udaletxean.

Animatu eta parte hartu!

komunikazioa@ataun.eus

 616758758

 @Ataungo_Udala

 Ataungo_Udala



ERROLDA ETA BIZIKIDETZA AGIRIAK

Errollda-agiria eskatzeko norbera etorri behar da, edo, bestela, ordezkatzeko den pertsonaren baimena ekarri behar da. Bizikidetza-agiria eskatzeko berdin: etxebizitza berean bizi diren 18 urtetik gorako persona guztien baimena behar da.

UDALETXE ATZEKO BARATZEA

Udaletxe atzean dagoen baratzea erabiltzeko interesa duzuenok, eman ezazue izena udaletxean. Pertsona bat baino gehiago izanez gero, zozketa egingo da.

HIZKETALAGUNA EGITASMOA

Euskara ikasten ari bazara eta mintzamina landu nahi baduzu, edo euskara ikasten ari direnei lagundu nahi badiezu, eman izena martxoaren 18a baino lehen:

Whatsappez: 616758758

Telefonoz: 943180011

Posta elektronikoz: kultura@ataun.eus

Indartu zure euskara eta lagundu euskarari indartzen!

HAURRESKOLA ZABALIK URTE OSOAN


Gogorarazi nahi dizuegu Ataungo Haurreskola zabalik dagoela urte osoan, eta edozein garaitan daukuzela aukera 0-2 urte bitarteko haurrak matrikulatzeko eta hara eramaten hasteko. **Telefonoa: 943.18.03.76**

Ataunen, 2020ko martxoaren 4an.



komunikazioa@ataun.eus

 616758758

 @Ataungo_Udala

 Ataungo_Udala